# LORTUTAKO INGURUMEN HOBEKUNTZAK

| BURUTUTAKO EKINTZA | LORTUTAKO HOBEKUNTZA |
|---|---|
| • Paper zuria kendu eta birziklatua erabiltzea. | • Paper birziklatuaren kontsumoa % 100 hazi da. |
| • Dekanotzako, Idazkaritzako, Atezaintzako eta Multimedia Geletako ordenagailuak eta inprimagailuak bi aldeetatik eta zirriborro kalitatearekin inprimatzeko konfiguratzea.<br>• Inprimatzeko gune komunetan erretiluak jartzea, erabilitako papera bertan uzteko eta paper hori berrerabiltzeko. | • Paperaren kontsumoa % 13,83 murriztu da. |
| • Paperezko eskuoihalen ordez esku lehorgailu elektrikoak jartzea. | • Dekanotzako eta Idazkaritzako komunetan % 86,75 murriztu da paperezko eskuoihalen erabilera eta horiek uzten duten hondakina. |
| • Ura banatzeko makinetako plastikozko edalontziak kentzea.<br>• ***Vending*** makinetan "ontzirik ez" aukera jartzea.<br>• Langileei katiluak ematea plastikozko edalontziak ez erabiltzeko | • Kafe makinako plastikozko edalontziek utzitako hondakina % 7 murriztu da.<br>• Ura banatzeko makinako plastikozko edalontziek utzitako hondakina % 100 murriztu da. |
| • Edukiontzi bereziak jartzea, honako hauek banatzeko: papera, plastikoa eta gainerakoak. | • Plastikoaren birziklatze tasa % 2,2 igo da.<br>• Paperaren birziklatze tasa % 48 igo da. |

## SENTSIBILIZAZIO KANPAINA

- Ekoscan ziurtagiriari buruzko informazioa posta elektroniko bidez igortzea irakasle eta ikertzaileei, AZPko langileei eta ikasleei.
- Praktika onei buruzko kartelak jartzea jantokian, inprimagailuen gunean, edukiontzietan, ***vending*** makinetan eta gune komunetan.
- Informazioa emateko bilerak egitea AZPko langile guztiekin.
- Kanpainari buruzko informazioa webgunean eta fakultateko plasmazko pantailetan argitaratzea eta hedatzea.
- Ikasleentzako bi ekitaldi antolatzea (***ginkana***, ***photocall***).

2013ko urtarrila